

ERIZAINZAKO GRADUA

GAITASUNEN ARABERAKO EBALUAZIORAKO GIDA

PRACTICUM II-III

3. MAILA

ESKER ONAK

Gaitasunen araberako ebaluaziorako gida hau oinarritzen da Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskolako irakasle taldeak egindako *Erizaintza graduako gaitasunak*¹ gidaliburuan. Eskerrak ematen dizkiegu bihotzez beren lanagatik, eta zuzendaritzari bereziki, dokumentu hau egiten laguntzeagatik.

Era berean, eskerrak eman gura dizkiegu Leioako Erizaintzako Graduarekin kolaboratzen duten praktika guneetako tutoreei.

EGILEAK

Leioako Erizaintza Ataleko Praktika Batzordeko irakasle taldea:

Ana Belén Fraile Bermúdez

Silvia Caballero Sánchez

Elena Rodríguez Álvarez

Maite Feito Fernández-Capalleja

¹ *Erizaintza graduako gaitasunak*. Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskolako irakasle taldea. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa. Osakidetza. Gasteiz, 2015.

AURKIBIDEA

SARRERA	4
GAITASUNEN ARABERAKO EBALUAZIOA.....	5
1. GAITASUNA.....	5
2. GAITASUNA.....	7
3. GAITASUNA.....	8
4. GAITASUNA.....	9
AZKEN EBALUAZIOA.....	10
BIBLIOGRAFIA	11

SARRERA

Erizaintzako Gradu ikasketa plana² UPV/EHUko beste erizaintza eskola biek batera egin zen, eta, bertan zehazten denez, Practicumeko kreditu guztiak aurrez aurre egin beharrekoak dira. Titulazioan prestakuntza praktikoak 92 ECTS dauzka esleituta, 1837/2008 Errege Dekretua³ betez, eta bertan zehazten denez, Erizaintzako Gradu ikasleek gutxienez 2.300 ordu egin behar dituzte osasun arretako praktikan, Gidaritzapeko Praktiken izeneko moduluan. Kreditu hauek honela banatzen dira: 6 ECTS behaketa praktikan lehen mailan, eta 86 ECTS, berriz, praktika aurreprofesionaletan, titulazioko azken hiru mailatan, Practicumeko bost irakasgaien artean banatuak.

Praktika aurreprofesional hauek osasun arretako guneetan (osasun zentroetan, ospitaletan eta bestelakoetan) egiten dira, eguneko txanda desberdinetan, eta praktiken amaieran gaitasunen araberako ebaluazioa egiten zaie ikasleei. Halako tokietan lantzen dira balio profesionalak, arreta emateak eskatzen dituen komunikazio gaitasunak, arrazoitze klinikoa, kudeaketa klinikoa eta iritzi kritikoa, eta ikasleek aukera daukate Erizaintzan ikasitako ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak praktikan jartzeko. Ezagutza, trebetasun eta jarrera horiek oinarritzen dira tituluaren helburu nagusietan eta gaitetan deskribatutako gaitasunei dagozkien balio eta printzipioetan.

Ikasleek frogatu behar dute erizainen ardurapean dauden gizakiek erabiltzeko sendagai eta osasun produktuak aholkatu, erabili eta baimentzeko gai direla, urriaren 23ko 954/2015 Errege Dekretuaren I. Eranskinean aurreikusten direnak⁴⁻⁷.

Hauek dira Gidaritzapeko Praktiken gaitasun zehatzak:

1. Erizaintzako esku hartze planak diseinatzea, gauzatzea eta ebaluatzea, pertsonen, familien edo taldeen osasun premien araberakoak, eskuratutako gaitasunak erabiliz arreta oso, seguru eta kalitatekoa emateko, ebidentzia zientifikoetan eta arau etiko eta legalen oinarritua.
2. Lan talde batean lankidetzan jardutea komunikazio eraginkorra erabiliz, bakoitzaren rola identifikatuz eta lidergoa hartuz zainketa lanean, kudeaketarako tresnen bitartez, komunikazio ona izanez osasun arretaren maila guztien artean, eta baliabideak egoki erabiliz, hori guztia zainketa lana kalitate irizpideen arabera betetzeko.
3. Begirunez hartzea erabiltzaileak, haien familiak eta komunitatea, pertsona bakoitzaren egoeraren arabera, kode deontologikoaren balioak eta jarrera profesionalak txertatuz lanean, eta erabiltzaileen eskubideak sustatuz, hau da: parte hartzeko eskubidea, informaziorako eskubidea, autonomiarako eskubidea eta erabakiak hartzerakoan baimena jakinaren gainean emateko eskubidea, betiere kontuan hartuta osasun-gaixotasun prozesuaren testuingurua.
4. Gogoeta kritikoa egitea norberaren lanaz, kontuan hartuta pertsonaren, familiaren eta komunitatearen ezaugarriak eta testuinguru soziokulturala, etengabe ikasten jarraitzeko konpromisoa erakutsiz, eta arlo pertsonal eta profesionalen garatzen ahaleginduz, kalitateko zainketa integralak emateari begira.

Gidaritzapeko Praktiken moduluaren garapen kronologiko eta gradualak modua emango die ikasleei gaitasunok apurka-apurka eta arlo desberdinetan eskuratzeko, titulazioko lau mailatan zehar.

² Resolución de 10 de enero de 2012, de la Universidad del País Vasco, por la que se publica el plan de estudios de Graduado en Enfermería (BOE, núm. 33, 8 de febrero de 2012).

³ REAL DECRETO 1837/2008, de 8 de noviembre, por el que se incorporan al ordenamiento jurídico español la Directiva 2005/36/CE, del Parlamento Europeo y del Consejo, de 7 de septiembre de 2005, y la Directiva 2006/100/CE, del Consejo, de 20 de noviembre de 2006, relativas al reconocimiento de cualificaciones profesionales, así como a determinados aspectos del ejercicio de la profesión de abogado.

GAITASUNEN ARABERAKO EBALUAZIOA

1. GAITASUNA

Erizaintzako esku hartze planak diseinatzea, gauzatzea eta ebaluatzea, pertsonen, familien edo taldeen osasun premien arabera, eskuratutako gaitasunak erabiliz arreta oso, seguru eta kalitatekoa emateko, ebidentzia zientifikoetan eta arau etiko eta legeetan oinarritua.

EZINBESTEKO BALDINTZA	EZ DU BETETZEN	BETETZEN DU
Segurtasun klinikoaren printzipioak erabiltzea zainketan	Ez du prebentzio neurririk hartzen botikak eman aurretik. Ez ditu gorputz mekanikaren printzipioak aplikatzen. Ez du prebentzio neurri egokirik hartzen istripu biologikoak eragozteko, eta ez du horretarako protokoloa betetzen.	Segurtasun klinikoaren eta gorputz mekanikaren printzipioak aplikatzen ditu, eta istripu biologikoak eragozteko prebentzio neurriak hartzen ditu. Ekimenaren eta zuhurtziaren arteko oreka egokiaz jokatzen du.

IKASKUNTZAREN EMAITZAK	GAITASUNAREN ESKURATZE MAILA										
	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	GUZTIRA
1. Praktikarekin zerikusia duten egoera guztietan behatze lana egiteko eta datuak biltzeko trebetasuna garatzea.	Ez du behatze lanik egiten eta ez ditu datuak egokiro biltzen praktikaren egoeretan.				Praktikaren egoerei buruzko oinarriko datu egokiak biltzen ditu. Erakusten du prozesua aurretik ezagutzen duela, eta pertsonaren osasun egoerari buruzko datu garrantzitsuak identifikatzen ditu.				Sistematikoa da praktikaren egoerei buruzko datuak biltzen eta gai da haien garrantzia baloratzeko. Antolatutako datuak bikain argumentatzen ditu, eta osasun egoeran jartzen du arreta.		
2. Informazioa aztertzea epai klinikoak identifikatzeko eta zainketa plan individualizatua egiteko, pertsonaren egoeraren arabera.	Ez ditu zainketaren arloak identifikatzen. Ez ditu epai klinikoak ondo identifikatzen. Bere balorazioetan garrantzi gutxiko datuak identifikatzen ditu, are eta osasun egoerarekin zerikusirik ez dutenak ere. Ez ditu zainketa egokiak planifikatzen.				Zainketaren arloak identifikatzen ditu eta epai klinikoak egokiro formulatzen ditu. Zainketa egokiak planifikatzen ditu. Saiatzen da aurkitzen bere planteamenduen eta profesionalen arteko desberdintasunak.				Zainketaren arlo garrantzitsuenak identifikatzen ditu. Osasun egoerari dagozkion epai klinikoak identifikatzen ditu eta zainketa individualizatuak planifikatzen ditu, epai kliniko horien arabera. Bere planteamenduen eta profesionalen arteko desberdintasunak aztertzen ditu.		
3. Zainketa plan bateko zereginak egitea eta teknikak aplikatzea, segurtasun klinikoaren printzipioen arabera.	Ez du erakusten bere prestakuntza mailari dagozkion ezagutzak eta trebetasunak dituenik zainketa planeko zereginak betetzeko. Batzuetan arinkeriaz jokatzen du eta ez du laguntzarik eskatzen.				Modu egokian betetzen ditu zereginak, erakusten du behar diren ezagutza eta trebetasunen jabe dela, eta kontuan hartzen ditu segurtasun klinikoaren printzipioak. Behar duenean, laguntza eskatzen du.				Nabarmendu egiten da bere zereginetan: ezagutza eta trebetasunen jabetza bikaina erakusten du, segurtasun klinikoaren printzipioak hartzen ditu kontuan, eta zuhurtziaren eta ekimenaren arteko orekaz jokatzen du beti.		

<p>4. Ebaluatzea eta erregistratzea (gainbegiratuta) pertsonak nola erantzun dien zainketei, eta behar diren aldaketak egitea zainketetan, pertsonaren bilakaeraren arabera.</p>	<p>Ez du egokiro eguneratzen zainketa plana. Garrantzi urriko datuak erregistratzen ditu, zehaztasun eta objektibotasun gutxirekin. Ez du osasun egoera islatzen, ez eta bilakaeraren datu garrantzitsuenak ere.</p>	<p>Zainketa plana aldatu eta eguneratzen du, baina zailtasunak ditu. Erabiltzaileak zainketa planari emandako erantzunaren zenbait datu erregistratzen ditu.</p>	<p>Zainketa plana eguneraturik dauka, eta pertsonaren egoeraren aldaketei egokitua. Zehaztasunez eta objektibotasunez erregistratzen ditu datuak, eta pertsonaren osasun egoeraren ikuspegi oso eta eguneratua ematen du.</p>	
<p>5. Gizakiek erabiltzeko sendagai eta osasun produktuen ematea aholkatu, erabili eta baimentzea</p>	<p>Ez du erakusten bere prestakuntza mailari dagozkion ezagutzak gizakiek erabiltzeko sendagai eta osasun produktuen ematea aholkatu, erabili eta baimentzeko</p>	<p>Ezagutza urria du gizakiek erabiltzeko sendagai eta osasun produktuen ematea aholkatu, erabili eta baimentzeari buruz.</p>	<p>Gizakiek erabiltzeko sendagai eta osasun produktuen ematea aholkatu, erabili eta baimentzea egoki egiten du.</p>	
<p>KALIFIKAZIO OSOA</p>				
<p>Oharrak:</p>				

2. GAITASUNA

Lan talde batean lankidetzan jardutea komunikazio eraginkorra erabiliz, bakoitzaren rola identifikatuz eta lidergoa hartuz zainketa lanean, kudeaketarako tresnen bitartez, komunikazio ona izanez osasun arretaren maila guztien artean, eta baliabideak egoki erabiliz, hori guztia zainketa lana kalitate irizpideen arabera betetzeko.

EZINBESTEKO BALDINTZA	EZ DU BETETZEN	BETETZEN DU									
Betebehar formalak betetzea: ordua, txanda aldaketak, itxura eta uniformeak zaintzea; abisua ematea ezustekoak gertatzen direnean (atzerapenak, gaixotasunak, baimenak eta abar).	Ez ditu betebehar formalak ondo betetzen. Berandu heldu ohi da eta huts egiten du praktikara justifikaziorik gabe. Ez da txanda aldaketetara joaten. Ez du itxura behar bezala zaintzen (ez du ilea jasotzen, ez ditu eskuak edo azazkalak garbi izaten, joiak eramaten ditu eskuetan...).	Betebehar formalak betetzen ditu, ordua zaintzen du eta ezustekoak daudenean abisua ematen du. Beti joaten da txanda aldaketetara. Txukun eta garbi agertzen da (uniformea, eskuak eta azazkalak garbi, joiarik ez, ilea jasota...).									
IKASKUNTZAREN EMAITZAK	GAITASUNAREN ESKURATZE MAILA										GUZTIRA
	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	
1. Unitatearen zereginetan parte hartzea eta lan taldean integratzea.	Jarrera pasibo eta negatiboa erakusten du unitatearen zereginetan parte hartzeari dagokionez. Ez da lan taldean integratzen.				Ez da oso komunikatiboa lan taldeko kideekin, baina ahalegina egiten du integratzeko. Arauetara moldatzen da eta unitatearen zereginak ezagutu ahala, bete egiten ditu.				Garbi, zuzen eta begirunez adierazten dizkie bere ideia eta iritziak beste taldekideei, eta modu aktiboan parte hartzen du unitatearen zereginetan. Unitatearen dinamikara egokitzeko gaitasuna erakusten du.		
2. Taldekideei galdetzea eta informazioa ematea (zalantzak, aldaketak, argibideak, akatsak eta abar) zainketarekin zerikusia duten jardueraz.	Ez du parte hartzen, ez du interesik erakusten eta ez dizkio bere iritzi eta jarrerak lan taldeari adierazten.				Gutxitan parte hitz egiten du taldekide gisa, baina bere jardunaren berri ematen du.				Naturaltasunez parte hartzen du lan taldean, eta bere jardunaren berri ematen du. Informazio egokia eta esanguratsua emateko gaitasuna erakusten du eta hizkera profesionala erabiltzen du.		
3. Denbora eta baliabide materialak eraginkortasunez kudeatzen ditu.	Ez du erakusten denbora eta baliabide materialak eraginkortasunez kudeatzeko gaitasunik.				Laguntza behar du denbora eta baliabideak kudeatzeko.				Modu egokian eta autonomiaz kudeatzen du denbora. Kontuan hartzen du zelako baliabideak dauden eta bikain erabiltzen ditu.		
KALIFIKAZIO OSOA											
Oharrak:											

3. GAITASUNA

Begirunez hartzea erabiltzaileak, haien familiak eta komunitatea, pertsona bakoitzaren egoeraren arabera, kode deontologikoaren balioak eta jarrera profesionalak txertatuz lanean, eta erabiltzaileen eskubideak sustatuz, hau da: parte hartzeko eskubidea, informaziorako eskubidea, autonomiarako eskubidea eta erabakiak hartzerakoan baimena jakinaren gainean emateko eskubidea, betiere kontuan hartuta osasun-gaixotasun prozesuaren testuingurua.

EZINBESTEKO BALDINTZA	EZ DU BETETZEN	BETETZEN DU
Pertsonen eskubideak ezagutu eta errespetatzea, eta uneoro konfidentzialtasuna eta sekretu profesionala bermatzea.	Ez ditu ezagutzen erabiltzaileen eskubideak. Begirune falta erakusten du eta ez du pertsonen intimitatea errespetatzen. Ez du ardura handirik erakusten pertsonen osasunari buruzko konfidentzialtasuna zaintzeko.	Ezagutzen eta betetzen ditu erabiltzaileen eskubideak. Bere jardunean intimitatea zaintzen du uneoro, eta pertsonen duintasuna, balioak eta sinesteak errespetatzen ditu. Konfidentzialtasuna eta sekretu profesionala bermatzen ditu uneoro.
Komunikazio trebetasunak erakustea.	Ez du gizabiderik erakusten (keinu desegokiak egiten ditu, ez du agurtzen, ez du atean jotzen geletan sartu aurretik, ez du aurpegira begiratzen berba egitean eta abar). Hitzeko eta hitzez bestelako komunikazio desegokia (uzkurra da, agintzailea, lotsagabea, oldartsua). Pertsonak infantilizatzen ditu. Ironia darabil harremanetan.	Hitzeko eta hitzez bestelako komunikazio egokia darabil. Entzuteko eta elkarrizketarako gaitasuna dauka. Modu errazean azaltzen ditu bere ideiak.
Esku hartu aurretik ziurtatzea behar dituen ezagutzak eta informazioa eskuratu dituela. Esku hartu aurretik baimena eskatzea, eta egiten duenaren berri ematea bai lan taldeari eta bai erabiltzaileari.	Ez da jabetzen esku hartu aurretik beharrezkoa dela behar diren ezagutzak eta trebetasunak izatea. Ez du galdetzen eta ez du egiten duenaren berri ematen. Esku hartu aurretik ez dio baimenik eskatzen erabiltzaileari.	Esku hartu aurretik ziurtatzen du badituela behar diren ezagutza eta trebetasunak. Segurtasuna transmititzen du, eta, esku hartu aurretik, egingo duenaren berri ematen du eta baimena eskatzen dio erabiltzaileari.

IKASKUNTZAREN EMAITZAK	GAITASUNAREN ESKURATZE MAILA											
	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	GUZTIRA	
1. Praktika klinikoari lotutako arazo etikoak identifikatzea.	Ez da gai etikaren aldetik arazotsuak diren kasuak identifikatzeko.				Normalean arazo etikoak identifikatzen ditu eta laguntza eskatzen du konpontzeko.				Arazo etikoak identifikatzen ditu eta konponbide egokiak proposatzen ditu.			
2. Erabiltzaileen/familien inplikazioa identifikatu eta errespetatzea haien osasunari buruzko erabakiak hartzean.	Ez ditu ez identifikatzen ez errespetatzen erabiltzaileen/familien erabakiak osasun-gaixotasun prozesuan.				Normalean identifikatzen eta errespetatzen ditu erabiltzaileen/familien erabakiak osasun-gaixotasun prozesuan.				Beti identifikatzen eta errespetatzen ditu modu egokian erabiltzaileen/familien erabakiak osasun-gaixotasun prozesuan.			
3. Balio eta sineste desberdinen errespetuan oinarritutako harreman terapeutikoak ezartzea, entzuten jakitea eta enpatiaz jokatzeko.	Bere balio eta sinesteak jartzen ditu lehen-lehenik harremanetan. Ez ditu pertsona guztiak berdin tratatzen. Jarrera hotza dauka harremanetan.				Iritzi, sineste eta balioak errespetatzen ditu. Errespetuan eta berdintasunean oinarritutako harremanak ezartzeko gaitasuna erakusten du, eta jarrera egokia eta gizabidetsua dauka.				Iritzi, sineste eta balioak errespetatzen ditu. Jarrera egokia, gizabidetsua eta enpatikoa dauka eta sentimendu, emozio eta pertzepzioak adierazteko bidea ematen du.			
KALIFIKAZIO OSOA												

Oharrak:

4. GAITASUNA

Gogoeta kritikoa egitea norberaren lanaz, kontuan hartuta pertsonaren, familiaren eta komunitatearen ezaugarriak eta testuinguru soziokulturala, etengabe ikasten jarraitzeko konpromisoa erakutsiz, eta arlo pertsonal eta profesionalean garatzen ahaleginduz, kalitateko zainketa integralak emateari begira.

EZINBESTEKO BETEBEHARRA	EZ DU BETETZEN	BETETZEN DU
Bere ikaste prozesuan interesa, ardura eta ekimena erakustea, eta prest agertzea bere ikaskuntzarekin zerikusia daukaten jardura guztietan parte hartzeko.	Ez du interesik erakusten bere ikaste prozesuan eta ez dauka ekimenik unitatearen jardunetan parte hartzeko.	Interesa, ardura eta ekimena erakusten ditu. Erakutsi du ezagutzak eskuratu dituela, zentroko profesionalen gidaritzapean.

IKASKUNTZAREN EMAITZAK	GAITASUNAREN ESKURATZE MAILA										GUZTIRA
	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	
1. Bere ekintzen, omisioen eta akatsen erantzukizuna bere gain hartzea eta ikaskuntzaren ardura duten profesionalen gomendioak kontuan hartu eta aplikatzea.	Ez du bere gain erantzukizunik hartzen, eta ez ditu kontuan hartzen bere ikaskuntzaren ardura duten pertsonen gomendioak.				Gidaritza behar du ikaste prozesuan. Kontuan hartzen ditu gomendioak, baina sostengua eta gidaritza behar ditu abian jartzeko.				Autonomia dauka bere ikaskuntza gidatzeko eta ezagutzak eskuratzeko. Egiten duenaren erantzukizuna hartzen du bere gain. Gogo onez hartzen ditu iradokizunak.		
2. Egiten dituen esku hartzeak analizatzea, eta bere mugak onartzea hala ezagutza eta trebetasunei dagokienez nola ikaskuntzaren aurrean dituen jarrerari dagokienez, eta hobetu beharreko alderdiak identifikatzea.	Ez du autoebaluaziorik egiten bere esku hartzeen eta ikaskuntzaren aurrean dauzkan jarreraren inguruan. Ez ditu bere mugak onartzen eta ez ditu hobetu beharreko alderdiak identifikatzen.				Bere esku hartzeak ebaluatzen ditu. Bere mugak onartzen ditu eta hobetu beharreko alderdiak identifikatzen ditu. Alderdi horietan hobetzeko neurriak hartzen ditu, nahiz eta beti ez lortu.				Etengabeko autoebaluazioa egiten du Practicumean zehar. Ondo identifikatzen ditu hobetu beharreko alderdiak, neurriak hartzen ditu horietan hobetzeko, eta lortu egiten du.		
3. Emozioak (haserrea, larritasuna, antsietatea, tristura...) egokiro kudeatzea.	Ziurtasun faltarekin, urduritasunarekin, haserrearekin edo desadostasunarekin lotutako emozioak ez ditu egokiro kontrolatzen.				Bide onean dago bere emozioen kudeaketa egokirantz.				Praktika klinikoan inongo eraginik ez izateko moduan kudeatzen ditu bere emozioak.		
KALIFIKAZIO OSOA											

Oharrak:

AZKEN EBALUAZIOA

20_____/20____ IKASTURTEA

IKASLEA	
MAILA	
PRAKTIKA GUNEA	
ZERBITZUA	
PRAKTIKALDIA	

Praktikaldiaren amaieran ikasleei nota jakinaraziko zaie. Azken kalifikazioa orri honetan bertan jarri behar da, eta gero praktika guneko irakaskuntzaren arduradunari bidali behar zaio. Hark eskaneatu eta unibertsitatera bidali behar du. Komeniko litzateke praktikaldiaren erdialdera ebaluazio gida hau erreparasatzea ikaslearekin batera, eta ikusten joatea zertan hobetu dezakeen. Gaitasunak ebaluatzeneko nahitaezkoa da **EZINBESTEKO BALDINTZA** guztiak **BETETZEA**. Era berean, Practicum irakasgaia gainditzeko nahitaezkoa da **GAITASUN GUZTIAK** gaindituta izatea.

GAITASUNAK:	PUNTUAK
<i>1. Erizaintzako esku hartze planak diseinatzea, gauzatzea eta ebaluatzea, pertsonen, familien edo taldeen osasun premien araberakoak, eskuratutako gaitasunak erabiliz arreta oso, seguru eta kalitatekoa emateko, ebidentzia zientifikoetan eta arau etiko eta legeetan oinarritua.</i>	
<i>2. Lan talde batean lankidetzan jardutea komunikazio eraginkorra erabiliz, bakoitzaren rola identifikatuz eta lidergoa hartuz zainketa lanean, kudeaketarako tresnen bitartez, komunikazio ona izanez osasun arretaren maila guztien artean, eta baliabideak egoki erabiliz, hori guztia zainketa lana kalitate irizpideen arabera betetzeko.</i>	
<i>3. Begirunez hartzea erabiltzaileak, haien familiak eta komunitatea, pertsona bakoitzaren egoeraren arabera, kode deontologikoaren balioak eta jarrera profesionalak txertatuz lanean, eta erabiltzaileen eskubideak sustatuz, hau da: parte hartzeko eskubidea, informaziorako eskubidea, autonomiarako eskubidea eta erabakiak hartzerakoan baimena jakinaren gainean emateko eskubidea, betiere kontuan hartuta osasun-gaixotasun prozesuaren testuingurua.</i>	
<i>4. Gogoeta kritikoa egitea norberaren lanaz, kontuan hartuta pertsonaren, familiaren eta komunitatearen ezaugarriak eta testuinguru soziokulturala, etengabe ikasten jarraitzeko konpromisoa erakutsiz, eta arlo pertsonal eta profesionalean garatzen ahaleginduz, kalitateko zainketa integralak emateari begira.</i>	
GUZTIRA	

AZKEN NOTA: PUNTUAK, GUZTIRA /14

Begiralearen izen-deiturak: NAN:	Begiralearen sinadura:
Ikaslearen izen-deiturak: NAN:	Ikaslearen sinadura:

BIBLIOGRAFIA

1. Erizaintza graduako gaitasunak. Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskolako irakasle taldea. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa. Osakidetza . Gasteiz, 2015.
2. Resolución de 10 de enero de 2012, de la Universidad del País Vasco, por la que se publica el plan de estudios de Graduado en Enfermería (BOE, núm. 33, 8 de febrero de 2012).
3. REAL DECRETO 1837/2008, de 8 de noviembre, por el que se incorporan al ordenamiento jurídico español la Directiva 2005/36/CE, del Parlamento Europeo y del Consejo, de 7 de septiembre de 2005, y la Directiva 2006/100/CE, del Consejo, de 20 de noviembre de 2006, relativas al reconocimiento de cualificaciones profesionales, así como a determinados aspectos del ejercicio de la profesión de abogado.
4. REAL DECRETO 1837/2008, de 8 de noviembre, por el que se incorporan al ordenamiento jurídico español la Directiva 2005/36/CE, del Parlamento Europeo y del Consejo, de 7 de septiembre de 2005, y la Directiva 2006/100/CE, del Consejo, de 20 de noviembre de 2006, relativas al reconocimiento de cualificaciones profesionales, así como a determinados aspectos del ejercicio de la profesión de abogado.
5. Real Decreto Legislativo 1/2015, de 24 de julio, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de garantías y uso racional de los medicamentos y productos sanitarios. BOE nº. 177; 25/07/2015 [Fecha de acceso: 2018/02/10]: 62935 – 63030. Disponible en: https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2015-8343
6. Real Decreto 1718/2010, de 17 de diciembre, sobre receta médica y órdenes de dispensación. BOE Nº 17; 20/01/2011 [Fecha de acceso: 2018/02/10]: 6306 – 6329. Disponible en: <https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2011-1013>
7. Real Decreto 954/2015, de 23 de octubre, por el que se regula la indicación, uso y autorización de dispensación de medicamentos y productos sanitarios de uso humano por parte de los enfermeros. BOE Nº 306; 23/12/2015 [Fecha de acceso: 2018/02/10]: 121483 - 121498. Disponible en: https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2015-14028
8. Real Decreto 1302/2018, de 22 de octubre, por el que se modifica el Real Decreto 954/2015, de 23 de octubre, por el que se regula la indicación, uso y autorización de dispensación de medicamentos y productos sanitarios de uso humano por parte de los enfermeros. BOE Nº 256; 23/10/2018 [Fecha de acceso: 2018/02/10]: 102636 - 102643. Disponible en: https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2018-14474
- 9.